

2. BALOREZKO PROPOSAMENAK

Guk sortutako **Ekoapp** aplikazioan, ezaugarri ugari dira gainontzeko antzeko aplikazioetatik bereizten gaituztenak:

Balioetako bat, bakoitzak jasoko dituen menuak eta errezetak **pertsonalizatuak** direla aipatu behar dugu, eta honela aplikazioak gure zerbitzua **nobedade** bihurtzen du. Gure zerbitzua, norberarengana, hau da, bezero bakoitzera egokituko da.

Pertsonalizatua izateaz gain, gure aplikazioak beste balore batzuk ere ditu:

- *Bertako produktua:* Azken hamarkada hauetan gure lurra eskaintzen dizkigun produktuak ez ditugu kontuan hartzen, eta hauek gure osasunerako beharrezkoak diren balio nutrizionalak dituzte. Bertako merkatu eta denden bidez garaiak garaiko produktuak bultzatu nahi ditugu.
- *Zerbitzu azkarra:* Gaur egungo teknologiari esker, gure zerbitzua modu azkar batean eskaintzea ahalbidetzen du. Hau da, botoi batzuk sakatu eta bakoitzaren beharrak asetzen dira.
- *Bizitza erraztea:* Askotan ez dakigu zer jarri bazkaltzeko edo afaltzeko, sormena behar izaten da eta horrek, nekea sortzen du. Aplikazio honen bidez, pertsona bakoitzak bere datuak sartutakoan, ahalbidetuko dio menu horiek eginda ematea, ezer pentsatu gabe.
- *Kultura desberdinetako errezetak bideratzea bertako produktuekin:* Gaur egun bizi garen gizarte anitz honetan, eta kultura ezberdinak errespetatuz, gure helburuetako bat bertako produktuekin beste kulturetako errezetak eskaintzea da.

Atal honekin amaitzeko, aipatu nahi dugu gure aplikazioa **egunerokotasunean** erabiltzeko prestatuta dagoela, edozein lekuan gaudela ere erabilgarria izan daitekeelako.